

# Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

2016ko abenduaren 23a, 505 zenbakia XI. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI IRISTEAR DIRA



## Eskualdeko egoera aztergai “Ekonomia Gurean” solasaldian

Astearte goizean Basteron ekonomiari buruzko mahai-ingurua izan zen, eskualdeko egoera ardatz hartuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak babestuta, Tokikomek, Beterrri-Buruntzako hedabideek eta Aiurrik elkarlanean “Ekonomia Gurean” saioa antolatu zuten Andoaingo Basteron. Berrogeita hamar lagunetik gora bildu zen ekitaldira, eta horien artean izan ziren **Ana Carrere** Andoaingo alkatea, **Jon Zulueta** Sustapen ekonomiko, Enplegu eta Gazteria lansaileko zinegotzia edota **La Salle Berrozpe** ikastetxeko Lanbide Heziketako Administrazioa eta Finantzak zikloko ikasle talde bat.

Bertaratu ez zirenek zuzenean internet bidez jarraitu ahal izan zuten saioa. Izan ere, so-



Urko Aristi, Miren Estensoro, Arantxa Eguzkiza eta Nerea Yurrebaso Basteron. Lehen ilaran, Andoaingo Lanbide Heziketako ikasleak.

lasaldiak telebista platoan egin dira tokiko telebista eta internet plataforma ezberdinetan eskaintzeko. Aurtengoa solasaldiak martxan jartzen diren lehen urtea izan da, eta Andoaingo hirugarren saioa izan

da. Aurretik solasaldi bana egin dira, Bergaran eta Zarautzen hurrenez hurren.

Eskualdeko ekonomiaren sektore eta datuen adierazleak, eskualdeak dituen indarguneak eta ahulguneak, nazioarte-

kotzea, sagardogileen industria, etorkizunerako erronkak, garapen agentziak ekonomia suspertzeko izan dezakeen garrantzia..., ordubeteko solasaldi atsegina eta arina izan zen.

[ESKUALDEA, 9. ORRIALDEA]

## “Ez gaude udan fest” jaialdia Gaztetxean



Eskarmentu handiko musikariak talde eta estilo aldaera ezberdinetan, horixe da abenduaren 23ko gauak Andoaingo Gaztetxean eskainiko duena. **Pheasant S Tears**, **The Wc Grooves**, **Saionaitz** eta **Ixo!!!** talde hasiberriak igoko dira taula gainera, 22:00etan hasita.

[ANDOAIN, 12. ORRIALDEA]

## Ane Anza dantza irakaslea



Datorren astean ikastaroa eskainiko du Urnietako Saroben, dantza garaikidean trebatu nahi duen ororentzat. Hip hop musika ardatz hartuta, bigarren ikastaroa eskainiko dute Sarobekoek Eguberri hauetan. Izen-ematea Saroben bertan egin behar da.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

## Estreinaldia ostiral honetan

Hiriburu guztietan estreinaldia egitearekin batera, “Pixi Post eta opari-emaileak” filma Andoaingo Basteron eskainiko dute.

Arratsaldeko 17:00etan hasita, ostiral honetan haurrentzako filma eskainiko dute. Andoi-

nen aurkezteak badu bere arrazoia, Andoaingo Somuga etxeak ekoiztu baitu filma. Juanjo Elordi herrikideak parte hartu duen lanik berriena da, “Gartxot” edota “Yoko” filmeekin arrakasta handia lortu eta gero. Andoaindarrek herritik mugitu gabe estreinaldiaz gozatzeko aukera izango dute.

[ESKUALDEA, 7. ORRIALDEA]



50 EGAPEN IRASTOLA 2016-2017

# ZORROAK

## ETA URTE BERRI ON

Denbora itxoiten pasa ondoren gabonak iritsi dira: irribarre, algara ta poza gure artean dagoa famili, lagun ta beste hainbat etorriko dira hona ederki pasa itzazue gabonak merezita duzue ta.

(Deimaa: Hiru aste badirela)



# Egitarau oparoa Urnietan aurtengo Eguberrietan

Urnietako Udalak Eguberrietako egitarau oparoa antolatu du, eta eurek bezala beste zenbait herri eragilek ere bere aletxoak ipini dute. Besteak beste, Iñistorra elkarteak abenduaren 21eko Santomas

ospakizunarekin edota Poxta Zahar gazte elkarteak San Silbestre lasterketaren antolakuntzarekin. Urnietan bertan jaiez gozatzeko hamaika aukera izango dira urtarrilaren 6ra bitarte.



Gorka Iribar eta David Rosco.

**Gorka Iribar** Udal teknikariak eta **David Rosco** zinegotziak pasa zen astean egin zuten Eguberrietako egitarauaren aurkezpena, herri osoan eskuorria banatzen hasi zirenean. **Musika eskolako** kontzertuekin hasi da egitaraua eta bestetik abenduaren 24an **Gabon kantari** irteteko lehen entsegua egin da. Bigarre-na ostegun honetan egingo dute, abenduak 22, iluntzeko 20:00etan Lekaion.

**Olentzero** eta **Mari Domingi** abenduaren 23an iritsiko dira Berrasoetatik eta Gorka Iribarrek **Egape** dantza taldeak bidelagun izango duen **On Bosko** bandaren parte hartzea nabarmendu zuen: "Goruntz doan jarduera da, eta **Txanbolinekin** eta **Anabas** taldeekin batera ekitaldia girotzen arituko dira".

Sormen txokoa eta sormen topagunea ere aipagai izan zituen, Lekaion ipiniko dutena.

Haur eta gaztetzontzat aisialdia ziurtatuta dago Eguberri hauetan. Urnietatik atera gabe, aukera zabala izango da.



Eguberrietako magia berezia biltzen duen argazkia, iazko San Tomas ospakizunear.

Errege kabalgata, ohi bezala, arratsaldez abiatuko da. Ikusle modura edota desfilean, herritarrak parte hartzeko deia egin zuten: "Aurreko urteetan, eguraldia lagun, parte hartze handia izan da. Eskerrak eman beharrean gau-

de, iaz desfilean parte hartu nahi izan zuten guztiek ezin izan zutelako egin. Genituen trajeak baino bolondres gehiago aurkeztu ziren. Hori ikusita, aurten esfortzu bat egin dugu eta jantzi gehiago eskura izango ditugu".

David Roscok Saroben eskainiko diren dantza garaikide eta hip hop ikastaroak aipagai izan zituen. Doakoak izango dira, abenduaren 26an hasita.

Egitaraua, esan bezala, jarduera eta eskaintza zabalaz beterik dator.



# AIURRI



**Eguberri eta Urte berri on!**

aiurri.eus



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia





Abenduaren 31n, San Juan plazan hasita

## Lasterka egiten den mozorro festa

Urnietar askorengan gogo nabarrituko zenuten honezkeroko, herritarrak galdezka zebiltzalako: Aurten nondik nora egingo dute Urtezaharreko lasterketa? Xuban Ezeiza. Halaxe da, urteen poderioz ohitura sortu dugu herrian eta dagoeneko urnietar batzuk urduritzen hasita zeuden. Gure herrian hutsune hori bazegoen eta horregatik lasterketa martxan jartzea erabaki genuen. Jasotako erantzuna harrigarria izan zen, parte hartze handiarekin burutu baitira edizio guztiak. Herrian geroz eta korrikalari gehiago ikusten dugu eta lasterketaren atarian ilusio handia nabaritzen dugu.

### Ikusmin hori egotea seinale ona da, bestalde...

**XE.** Oso ona da, eta guretzat pozgarria. Gauzak ondo egin diren ondorio da. Herrikideak ilusioz ikusteak asko poztzen gaitu. Lana egin beharko dugu dena txukun ateratzeko, baina ikusmin hori motibagarria da guretzat.

### Izaera solidarioa izaten jarraituko du, gainera, aurtengo lasterketak...

**XE.** Iaz Super H taldearen alde arituginen lanean, eta aurten Pausokaren alde izango da. Dortsaletan Pausokaren logoa aterako da, eta eurekin bat egiteko modu aproposena iruditu zaigu. Pausokaren egitasmoa txalogarria da, eta jaietan haien aldetik laguntza jaso izan dugu. Bidezkoa iruditu zaigu Urnietan egoitza zabaldu duten hontan haien aldeko keinua izatea.

### Nolakoa izango da lasterketa?

**XE.** Ez dugu aldaketarik egiteko asmorik eta lehenik haurrei lasterka aritzeko aukera emango diogu. Eta ondoren iritsiko da helduen mailako lasterketa. Ibilbidea iazko berdina izango da, eta urnietarrek parte hartzea nahiko genuke.



### Parte hartze handia espero al duzue?

**XE.** Aurreko urteen ildotik joango dela uste dugu. Lasterketa parte hartzailea izango da, beste herrietan bezala Urnietan ere korrikalarien igoera nabarmena izan baita azken urteetan. Motibazio handia ikusten ari gara, kalean egun hauetan dagoeneko nabaritzen da lasterkari kopuru handiagoa. Izan ere, batzuk lasterka hasteko horrelako probak baliatzen baitituzte.

### Mozorrotuta imajinatzen zaitugu, ezin beste modu batera!

**XE.** Kar, kar. Ateratzen banaiz ia zurrira da mozorrotuta aterako naizela. Ospakizun modukoa da abenduaren 31koa, eta mozorrotuta ateratzek beste parma bat ematen dio lasterketari. Partaide guztiak mozorrotuta ateratzera gonbidatuko nituzke. Ea denon artean lasterketa alai antolatzea lortzen dugun!

Lasterketa doakoa da, gainera. Parte hartzaileek ez dute ordaindu behar izango.



Garaikidea eta Hip hop dantza estiloak

## Dantza ikastaroak Saroben

Eguberrietan dantza garaikideko eta Hip hop ikastaroak eskainiko dira gazteentzat, **Ane Anzaren** eta **Sergio Nguemaren** eskutik. Herrian dantza garaikidearekiko zegoen interesa ikusita, Aukeran konpainiaren eta Udaleren arteko hitzarmenari esker, iazko Gabonetan dantza tradizionala eta garaikidea uztartzen hasi ziren. Aurten esperientzia errepikatzea erabaki dute eta lau eguneko saioetan **Ane Anza** izango da irakaslea. 12 urtetik gorakoei zuzendutako saioak dira: "Garaikidearekin lehenengo kontaktua izango dute, oinarrizko lezioak eskainiko ditugu. Asko euskal dantzatik datoz, eta dantza garaikidearen saio hauek ondo etortzen zaizkie. Izan ere, gaur egun, askotan, bi aldaeren arteko fusioa egiten da. Gerora begira oso baliagarriak dira beraientzat".

Herrian dantzarekiko interes "handia" dagoela uste du **Jaione Jauregik** eta dantza garaikidean sakontzeko eskaerak ikusita, oporraldi hauetako saioak "arrakastatsuak" izaten direla azpimarratu du.

Funky-ak ere arrakasta handia dauka Urnietako gazteen artean, ondorioz, Hip-hop saioak ere eskainiko dituzte.



### EGUTEGIA, ORDUTEGIA

#### Dantza garaikidea:

Abenduak 26, 28 eta 29.

+15 urte: 10:00-11:30.

12-14 urte: 11:30 - 13:00.

#### Hip-hop:

Abenduak 30, urtarrilak 2, 3 eta 5

+15 urte: 10:00-11:30.

12-14 urte: 11:30 - 13:00.

**GABON ZORIONTSUAK URTEBERRI ON!**

**Keinu**

www.txapelaketabordatuak.eus  
Txapela buruan eta ibili munduan

**BASERRITAR JANTZETAN AUKERA ZABALA**

Kale Nagusia, 12  
20140 ANDOAIN  
943 02 96 76  
637 28 32 24

BANDERAK TXILABAK





Eguberrietako ospakizunen hasiera bikaina

## Eguberrien atarikoa Juanita Alkain plazan

Erromeria ospatu zuten Urki dantza taldeko kideek Juanita Alkain plazan, joan den larunbat goizean. Urki osatzen duten eragile, dantzari eta gurasoek eta hainbat herritarrek hartu zuten parte ospakizunean.

Euskal kutsuko erromeria ikusgarria gertatu zen; jada tradizio bihurtzen ari den ekitaldi polita da, Egube-

rrien etorrera iragartzen duena. Bertaratutakoek, Urkiko kideek prestatutako pintxoak eta Juanma Garcia eta Joseba Albisuk danbolinean erretako gaztain goxoak jateko aukera izan zuten.

Eguberrien atariko festaren hasiera izan zen, egun osoan zehar ekitaldi gehiago izan baitzen Andoainean.



Etxeko obradorean egindako ogia, pastelak, pastak, ...

**arruti**

Zorionak eta urte berri on!

guzotegia

Zumea 18 - Andoain - 943 593 777 - arrutigozotegia@hotmail.com



Mari Domingik eta Olentzerok gutunak jaso zituzten

## Ikusmin handia Etxeberrietan

Larunbat arratsaldea iluntzearekin batera iritsi ziren Mari Domingi eta Olentzero Etxeberrietako plazara. Lasto fardo eta kandlekin apaindutako txokotan, haurrak gutunak jasotzeko prest jarri ziren. Ilara luzea zegoen plazan eta gutxi gorabehera hiru ordu egon ziren bertan, haurrak Gabonetan jaso nahi zituzten opari guztien berri aditzen. Banan-banan haur guztiek izan zuten aukera beraiekin egoteko eta argazkiak ateratzeko. Horrekin batera, auzoko jai batzordeak antolatuta, txokolate beroa eta gaztainak egin zituzten arratsalde hotza berotzeko.

Antolazailiek balorazio "positiboa" egin dute, jende asko gerturatu zelako eta horrelako ilara luzea Olentzero eta Mari Domingiren aurrean ikustea "pozgarria" delako. **Ixiar Oreja** arituzen Mari Domingiren paperean gutunak jasotzen eta goxokiak banatzen. Berak azaldu duenez, horrenbeste umerekin egon ahal izatea poztekoa da: "Euskaldunez gain, erdal giroko

*"Gure kultura herrian zabaltzeko eta erdal giroko jendea bertara gerturatzeko baliabide guztiak erabili behar ditugu"*

**IXIAR OREJA**

jendea ere hurbiltzen da eta euskaraz jakin ez arren, beraien aldetik ahalegin bat egiten dutela nabaritzen dut", gaineratu du. "Egunerokoan beraien joera ez da oso euskalduna, baina larunbatean egin zuten ahalegin hori txalotzekoa da".

Errege Magoek arrakasta "handia" izaten dute urtero ia herri gehienetan, baina Olentzero eta Mari Domingi ere ari dira beraien bidea egiten Ixiarren ustez: "Gure kultura herrian zabaltzeko eta erdal giroko jendea bertara gerturatzeko baliabide guztiak erabili behar ditugu". Arratsalde hori, beraz, zentzu askotan "magikoa" izan zela adierazi du.







Joan zen larunbatean ospakizuna egin zuten

## Izartxo taldearen Gabonetako festa

Eguberrien atariko festa borobiltzeko Izartxo aisialdi taldeko kideek ospakizuna antolatu zuten, Urtezahar gaueko kotiloi modukoa eginez.

### Larunbat arratsaldean Eguberrietan sartu zinetela esan daiteke...

**Igor Bere.** Eguberrietako jaialdia izan zen, Izartxo osatzen dugun guztion familia ospakizuna izan zela esan daiteke. Adin guztietako kideak bildu ginen Gabon giroan murgiltzen hasi gintezen. Arratsaldeko lauretan hasi zen ospakizuna, haur eta gurasoentzako jolasak eta emankizunak antolatuz. Gaztain jaitea eta txokolatea banatu genituen dohainik. Gabonetako musikarekin, jolas-tokia girotu genuen. Iluntzean gazteek Gabon festa modukoa egin zuten, hainbat begirale eta gazte dotore jantzita etorri ziren eta ikasleentako batek DJ lanak egin zituen.

Eguberrietako giroan murgiltzeko plana izan zen, baina bereziki ospakizuna kide guztiak elkartzeko baliatu

*“Izartxon aisialdia adinka antolatzen dugu normalean, baina tarteka guztiak batera aritzea sustatzen dugu”*

IGOR BERE

nahi izan genuen. Izartxon adinka banatzen ditugu taldeak normalean, baina tarteka guztiak batera aritzea sustatzen dugu. Eta alde horretatik Eguberrien atariko festa oso aukera ona zen.

Gazteak elkartzeaz gain, familiak ere bertaratu ditugu. Haur eta gazteen heziketan funtsezko dira gurasoak, eta horrelako ospakizunetan euren parte hartzea garrantzitsua dela deritzogu.

### Aspaldiko ekimena al da?

Lehen sinpleagoa zen, eta urteekin jaia osatuz eta borobilduz joan gara. Topaketa modukoa izatea nahi dugunez, eskaintza zabaldu eta handitu egin dugu.



Ostiral honetan musika jaialdia 22:00etan hasita

## ‘Ez gaude udan fest’ jaialdia Gaztetxean



The WC Grooves



SaioNaiz

Eskarmentu handiko musikarien ibilbide berriak ezagutzeko aukera paregabea izango da ostiral honetan, An-

doingo Gaztetxean. Eguberrien atariko musika festa, talde adina estilo eta doinu eskainiz.



Pheasant's Tears

**Bitxikeriak - Arropa**

Urteberri on!

Nagusia 6 - Andoain - 943 59 12 24



# Arte eta moda txoko berria Andoaingo Kaleberrian

Marmar pop-up bazar moduko merkatua ireki dute Olatz eta Aizpea Esnalek Kaleberrian, Gabonetarako. Urtarrilaren 7a arte egongo da zabalik eta bertan kulturarekin, artearekin eta modarekin loturako

produktuak salgai ipiniko dituzte. Diseinatzaile eta ilustratzaile gazteen lanei toki bat egiteko sortu dute Marmar proiektu berritzailea.

Marmar proiektuaren atzean Esnal ahizpak eta Ricardo Félix *Virto* daude. Andoaingo eta Bartzelonako gazteen lanak jarri dituzte eskuragarri Kaleberriko 48. zenbakian: Letitare, Urtzi Alkain, Pau Esteve eta The Juno Design-en arropa, Enblanco studio eta Letitareren ilustrazioak, Ant kolektiboaren edizioak, Bidehuts-eko talde ezberdinen disko eta biniloak, kafea eta infusioak...

Oro har, bertako produktuak eta gazteen eskutik eginikoak jarri dituzte herriarren eskura. "Andoaingo artistez gain kanpotarrak ere badaude tartean, baina guztiak dira gazteak", diote. 40 urteko kafe makina zahar bat ere badaukate, izan ere, birziklapenaren bidea ere landu nahi dute. "Betidanik egon gara kulturarekin lotutako zerbait egin nahian", azaldu du Olatzek. Hala, auzoa biziberritzea da beraien helburua; izan ere, Kale Nagusia, Kaleberria eta Zumea ingurua "hilda" sumatzen dituzte.

## KULTURGUNE BAT AUZOA BIZIBERRITZEKO

Gabonetako denda honen atzean, ordea, beste egitasmo handiago bat dago. Izan ere, pop-up bazar honen aurretik, kulturegune-taberna bat irekitzeko asmotan egon dira Esnal ahizpak. Kooperatiba txiki bat sortzeko asmotan dabilta, herriko kulturari eta arteari bide alternatiboa emateko. Hori horrela, zerbait ezberdina eskaini nahian, agenda kultural bat duen taberna irekitzeko proiektua dute eskuartean: "Tailerrak, irakurketa klubak, kontzertu akustikoak..., eskaini nahi ditugu". Ekitaldi ugari egiten da herrian, baina zerbait alternatiboagoa egin nahi dugu".



Olatz eta Aizpea Esnal ahizpak Pop Up bazar gunean.

Horren alde lanean dabilta aspaldidanik. 2016an zehar irekitzea espero zuten, baina asmo hori atzeratuta, denda berezi hau ireki dute Gabonetarako: "Proiektu handi hori atzeratzen joan da eta hori sortzeko bidean jaio da oraingo egitasmo txikia", adierazi du Aizpeak.

## MARMARREAN

Gabonetako egitasmo honek beraien ize-na zabaltzeko balioko duela uste dute. "Marmar" izen egokia iruditu zitzaizen bi

ahizpei proiektu honetarako: "Amonak beti esaten zigun marmarrean egoten girela, eta hortik dator izena. Polita iruditu zitzaigun eta irudi bezala ere ondo funtzionatu du", azpimarratu dute.

Instagrama eta web orrialdea egin dituzte beraien proiektua ezagutzera emateko.

## ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: 16:00-20:00.  
 Larunbatak: 10:00-14:00 / 16:00-20:00.

## PRODUKTU SORTA

- Diseinatzaile gazteen arropa: Letitare, Urtzi Alkain, Pau Esteve eta The Juno Design.
- Ilustrazioak: Enblanco studio eta Letitare.
- Ant kolektiboaren edizio ezberdinak.
- Haurrentzako tatuatzeko egurrezko pistolak (jostailuzkoak, eskuz eginak) eta kalkamoniak.
- Marmar boltoak.
- Bidehuts zigiluaren CD eta biniloak.
- Kokoshka taldearen biniloak.
- Viña Zorzal ardoa.
- Kafea eta infusioak (eramateko).

**ORMENDI & KIROLAK**  
**Zorionak eta Urteberri on!**

Gabonetan larunbat arratsaldez irekita

Kale Berria, 2 - Andoain  
 Tel.: 943 591 806  
 ormendikirolak@euskalnet.net

**Urrats**  
 inprimategia  
 Urteberri on!

Urrats inprimategian aurki dezakezu Gabonetan egin nahi duzun opari pertsonalizatu hori.

BISITATU WEBGUNE BERRIA

[www.urratsinprimategia.com](http://www.urratsinprimategia.com)

Zumea Kalea, 19. Andoain  
 Tel.: 943 575 293  
 urrats@urratsinprimategia.com

- Diru-zorroak
- Sekretuen hizkar-zorroak
- Puzzleak
- Kuxinak
- Egutegiak
- Mahai jokoak
- Katiluak
- eta ideia gehiago ditugu bertan





Abenduaren 23an Olentzero eta Mari Domingi datoz

## Eguberriak Urnietan

### Abenduak 22, osteguna

- Opari tailerra. 17:00-19:00 Gaztelekua.
- Musika eskolako Gabonetako kontzertua. 19:00 Sarobe.
- Gabonetako abesbatzan kantari atarako den taldearen azken entsegua. 20:00 Lekaio.

### Abenduak 23, ostirala

- Mahai tenisa. 17:00-20:00 Gaztelekua.
- Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. 18:00 Berrasoeta-San Juan plaza.

### Abenduak 24, larunbata

- Gabon kantak. 12:00 Herrian barrena.
- Gabonetako abesbatzaren irteera. Baserritarrez jantzita. 16:00 Lekaio.

### Abenduak 26, astelehena

- Sormen txokoa. 11:00-13:00 Lekaio.
- Sormen topagunea. 17:30-19:00 Lekaio.
- Itsas lirika taldea. 19:00 Eliza.

### Abenduak 27, asteartea

- Kirol jarduerak. 10:00-13:30 Gaztelekua.
- Sormen txokoa. 11:00-13:00 Lekaio.
- Kirol jarduerak. 15:30-19:00 Gaztelekua.
- Sormen topagunea. 17:30-19:00 Lekaio.
- Yolanda Arrieta ipuin kontalaria, 5 urtetik gorako haurrentzat. 17:30 Lekaio.

### Abenduak 28, asteazkena

- Sormen txokoa. 11:00-13:00 Lekaio.

- Irteera Errenteriako zinemara. 15:00-20:00 Gaztelekua.
- Sormen topagunea. 17:30-19:00 Lekaio.
- Astokillo Zirkus familia ikuskizuna. 17:30 Egape, jolastoki estalia.
- The upper room gospel saioa. 19:00 Eliza.

### Abenduak 29, osteguna

- Sormen txokoa. 11:00-13:00 Lekaio.
- Sormen topagunea. 17:30-19:00 Lekaio.
- Ilunpeko pista jolasa. 18:00-21:00 Gaztelekua.
- Urnietako eta Donostiako musika eskola ikasleen emanaldia. 18:30 Kontzejupea.

### Abenduak 30, ostirala

- Patata tortilla lehiaketa, bazkaria. 10:00-15:00 Gaztelekua.
- Sormen txokoa. 11:00-13:00 Lekaio.
- Sormen topagunea. 17:30-19:00 Lekaio.
- Adarbakar urdina txotxongilo saioa, 3 urtetik gorako haurrentzat. 17:30 Lekaio.

### Abenduak 31, larunbata

- San Silbestre Poxta Zahar, Zanpautuz eta Pausoka taldeen eskutik. 16:00 San Juan plaza.

### Urtarrilak 2, larunbata

- Adarrara igoera. 09:30-14:30 Gaztelekua.
- Txoborro magoa. 17:30 Lekaio.

### Urtarrilak 3, igandea

- Karakterizazio tailerra, inauterietarako prestaketa. 10:00-14:00 Gaztelekua.
- Haur parkea. 16:30-18:30 Kiroldedia.



Pajeek gutunak jasoko dituzte abenduaren 30ean

## Eguberriak Andoainen

### Abenduak 23, ostirala

- "Pixi Post eta opari emaileak", haur filmaren estreinaldia. 17:00 Bastero.

### Abenduak 24, larunbata

- Aita Larramendi Ikastolaren eskutik, Olentzerori harrera. 17:00 Goikoplaza. 18:30 Espigoia.

### Abenduak 26, astelehena

- Gazte Astea: 09:30 Zesta punta Arraten. 11:00 Eskupilota Arraten. 16:30 Futbolina Gazte Lokalean. 18:00 Ping-ponga Gazte Lokalean.
- "Lurrak", Lurrak antzerkia. 20:00 IkusZirkus. Bastero.

### Abenduak 27, asteartea

- Gazte Astea: 11:00 Krossa Urigainen. 17:00 Postre tailerra Gazte Lokalean.
- "Bambalas", Bambolea konpainia. 20:00 IkusZirkus. Bastero.

### Abenduak 28, asteazkena

- Gazte Astea: 09:30 Basket 3x3 Ondarretan. 17:00 Antzerki tailerra Gazte Lokalean.
- "Viaje a la Luna", Nacho Diago. 20:00 IkusZirkus. Bastero.

### Abenduak 29, osteguna

- Gazte Astea: 09:30 Street art Gazte Lokalean. 17:00 Zumba Gazte Lokalean.
- "Sconcerto D'Amore". Nando & Maila. 20:00 IkusZirkus. Bastero.

### Abenduak 30, ostirala

- 16:00-20:00 Gabonetako Haur Parkea Allurralden.
- 16:30 Kale animazioa dultzaineroe-

kin. Ibilbidea: Karrika-Zumea plaza.

- 16:30-18:00 Pajeen irteera Errege Magoei zuzendutako eskutitzak jasotzeko. La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatuta, ibilbidea Sorabillan hasiko da eta Goikoplazan amaituko da.
- "Emportats", La Trócola Circ. 20:00 IkusZirkus. Bastero.

### Abenduak 31, larunbata

- 11:00-14:00 Gabonetako Haur Parkea Allurralden.
- 11:00-13:00 Kale animazioa txistulariekien.
- 11:30 San Silbestre lasterketa Zumea plazan. 5 kilometroko ibilbidea, mozorro giroan, Lasterka itzuli elkartearen eskutik.
- 16:00-19:00 Gabonetako Haur Parkea Allurralden.
- 00:45-04:00 Urtezahar gaueko DJ festa Nafarroa plazan.

### Urtarrilak 3, asteartea

- Gazte Astea: 10:00 Gazte erronka Goikoplazan. 15:00 Gazte erronka Goikoplazan.

### Urtarrilak 4, asteazkena

- Gazte Astea: 10:00 Master Txef lehiaketa eta bideo emanaldia Gazte Lokalean.

### Urtarrilak 5, osteguna

- Errege Magoen etorrera, La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatua: 18:30 Zumea plaza. 19:30 Goikoplaza.
- Salkinen Eguberrietako kanpaina: Gabonetako 45 sorta irabazteko aukera. Urtarrilaren 5a, parte hartze-ko azken eguna.

### Urtarrilak 7, larunbata

- 18:00-21:00 Bertso poteoa eta trikitixa.



## Lankidetzaren egitasmoak babesteagatik, Udalarari saria



Ana Carrere alkatea jaso zuen saria, San Telmo museoan.

Gipuzkoako gobernuz kanpoko erakundeek lankidetzarako ingeniariak hogeigarren urteurrena ospatu zuten joan zen abenduaren 14an. San Telmo museoan egin zuten ekitaldian Andoaingo Udala saritu zuten "Garape-

nerako Lankidetzaren proiektu ezberdinak aurrera eraman ahal izateko azken urteetan zehar azaldutako babesagatik". Ana Carrere alkatea eta Gizarte Zerbitzuetako teknikari Ana Sanz bertaratu ziren ekitaldira.

## Amador Granadosentzat, Gipuzkoarren Kirolak saria



Amador Granadosentzat, Gipuzkoarren Kirolak saria.

Gipuzkoako Foru Aldundiak abenduaren 15ean Irungo Ficoban ospaturiko Gipuzkoako Kirol Ekitaldian, 2016. urtean zehar eremu honetan nabarmendu diren herritarrek saritu zituen. Gipuzkoarren Kirolak saria Amador

Granados Alkortari eman zioten. Andoain bizi den kirolariak Paraolimpiar Jokoe-tan parte hartu eta brontzezko domina irabazi zuen pista-ko txirrindularitzako taldearekin.

Zorionak!

## Hogeita lau orduko itxialdia preso politikoaren alde



Herritar taldea pleno aretoko itxialdian.

"Kalera kalera" kanpainaren baitan ekimenak egiten dira Euskal Herria osoan zehar.

Andoaindar talde batek 24 orduko itxiera egin zuen pleno aretoan, joan zen larunbatean.

Jose Mari Olazabalen Bidea sari-banaketa ekitaldia Basteron

## Diezen eskuzabaltasunari aitortza, Caritasen aldetik



Felicidad Diez ez zen bakarrik egon Basteroko ekitaldian, etxeko kideak ere alboan izan zituen.

Hunkituta eta esker oneko agertu zen **Felicidad Diez**, saria jasotzera igo zenean oholtzara. Hitz hartu aurretik, **Gari** eta **Itziar** bere bi bilobek eta **Narria** birbilobak aureskua eskaini zioten. Ondoren, labor baina sentikor mintzatu zen Felicidad: "Ez nuen inondik ere espero izendapen hau. Omenaldi hau nik bezainbeste edo gehiago nire aitona-amonek merezi zuten, nire senarra hil ostean eskaini zizkidaten une atsegengatik. Ezin ditut ahaztu elkarrekin partekatu genituen irteerak, sagardotegietako bazkariak eta beste hainbat ekitaldi. Aldi berean, gogoan eduki nahi nituzke zahar egoitzako langileak; oso ondo jokatu izan dute nirekin, beti. Osasunak laguntzen didan bitartean, beti bezala jarraituko dut egoitzara joaten, hantxe bainaiz zoriontsu. Ez daukat inoiz ahazteko gaur egin didazuen esker oneko aitormen hauxe. Mila esker!".

### EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

**Caritas** elkarteke idazkaria den **Gregorio Olazagastik** izendapenerako arrazoiak agertu zituen, eta horretarako, epaimahaiak idatzitako akta irakurri zuen: "Epaimahaiak oso positiboztat baloratu du Felicidad Diez andereak Juan Bautista Bataiatzailearen egoitzan musutruk egiten duen lana. Aste bitan bertaratu, bertako aitona eta amonei lagun egitera; 25 urtetik gora darama eginkizun horretan, etekin gabe. Egoitzako plantillako kide bat dela esan daiteke. Emakume bizia eta alai da, maitatua eta oso ondo onetsia langile eta bertako zuzendaritzaren aldetik. Eta baita, Andoaingo

Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik, eta, halako goxotasunez eta maitasunez hartzen dituen aitona-amonen eta beraien sendien aldetik ere. Ez daukagu zalan-

tzarik bere eginkizunean musutruk jartzen duen ahalegina, gogo, eskuzabaltasuna eta alaitasuna dela-eta, merezimendu osoz jasoko duela Jose Mari Olazabalen Bidea saria".


Epaimahaia, honako pertsonak osatu dute: Caritas elkarteke **Juanita Rodriguez**, **Angelina Lopez**, **Asun Diaz** eta **Jose Luis Rezola**, Ondarreta ikastetxeke **Kontxi de la Fuente** eta Andoaingo Udaleko **Ana Sanz** langileak eta **Ane Carrere** alkatea. Hama sei hautagai izan dituzte mahai gainean aurtengo edizioarako, Felicidad Diezen gain: Valentín Espejo, Inazio Aizpurua, Euskalduna Futbol Taldea, Andoaingo Kaleratzeak Stop Desahucios, Izartxo aisaldi taldea, Zuena emakumeen elkarte, Hurria Sahara eta Joxe Mari Oiarzabal eta Osasunaren pastoralak.

Zahar Egoitzako langileek ez zuten hutsik egin nahi izan, eta ikus-entzunezko baten bidez, besarkadarik beroena luzatu zioten Felicidad Diezi.

Urtero legez, Andoaingo Caritasen historian bertako kide boluntario izan diren batzuei elkartearen sortze aktako pergamino banatu zitzaizkien. Aurtengoan, **Milagros Orbeago**, **Moderata Aranburu**, **Juantxo Arregi**, **Ines Lekuona** eta **Adelaida Ruiz de Larrinaga** izan dira horiek.

Ekitaldian zehar, aurtengo 50 urte betetzen dituen Gipuzkoako Caritas elkarteke lehendakariak hartu zuen hitza, eta aldi berean, **Alberto Agirre abesbatza**ren, Andoaingo **Olagain** elkarteke txistularien eta **Mikel Rodriguez** eta **Delia Belloso** tangoko dantzarien emanaldiez gozatu ahal izan zuten Basterora bertaratu ziren herritarrek.

### AMENABAR GOGOAN



Felicidad Diez ez zen izan aipamen berezia jaso zuen pertsona bakarra, ekitaldian. Hitz gozoak entzun ahal izan ziren oraindik orain hil den **Mari Pilar Amenabar**rentzat. Andoaingo Caritas elkarteke kide den **Virginia Hernandezek** adierazi zuenez, "izugarriko emakumea zen, elkarteke kide nekenezina. Beti besteen onerako pentsatzen zuena, bere buruaren aurretik. Eguntan, ederki jabetu gara zenbaterako maitasuna erakutsi ohi zion hurkoari. Adibide gisa jarri dezaket Nigeriatik etorritako mutil batek izan zuen erreakzioa, bere amama hil zela jakinarazi genioanean: negar batean lehertu zen. Maria Pilarrek barru-barruraino sartu zigan honako irakaspena: entzunez eta goxotasuna erakutsiz ere lagundu litekeela hurkoa, arima ere elikatzen baita horrela. Inoiz ez zaitugu ahaztuko".



MAHAI-INGURUA BASTERON AIURRI, TOKIKOM ETA ESKUALDEKO HEDABIDEEKIN ELKARLANEAN

# Eskualdeko ekonomiaren gakoak eta erronkak

“Ekonomia Gurean” saioan eskualdeko ekonomian jarri zen begirada, Tokikomek eta Aiurrik antolatutako mahai-inguruan. Gipuzkoan eta Euskadin industria nagusi da, eta Gipuzkoan bereziki ta-

maina txiki eta ertaineko enpresak. Ziurgabetasun handia dago etorkizunari begira eta Basteron aipatutakoaren harira, erronkak nazioarteratzea, lehiakortasuna edota elkarlana areagotzea dira.

**Urko Aristi** telebista aurkezle ezagunak bideratu zuen mahai-ingurua. Beterri-Buruntzako argazkia edo erradiografia egin nahian agertu zen Andoaingo Basterora: “Hitz potoloak alde batera utzi, eta era ulergarrian gure ekonomia zertan den islatzeko asmoz etorri gara. Eta horretarako hiru gonbidatu ditut alboan, eta hirurak emakumeak. Txalotzekoa dela iruditzen zait”.

Basteron ziren ikusleek txalo egin zuten, Aristirekin bat egin ez. Hauexek izan ziren alboan izan zituen solaskideak: **Miren Estensoro** Orkestra lehiakortasun institutuko ikertzailea, **Arantxa Eguzkitza** Hernaniko Iparragirre sagardotegikoa, eta **Nerea Yurrebaso** Andoaingo Udal teknikaria, Beterri Buruntzako enpresa munduari lotuta lanean dabilena.

## LEHIAKORTASUNA

Miren Estensorok, lehiakortasunaren ikuspegitik, eskualdea erdibideko mailan ipini zuen. Eta horretarako hainbat datu erabili zituen. Besteak beste, barne produktu gordina edota langabezia tasa: “Eskualdea, 70.000 biztanlerekin, erdibideko lehiakortasun maila dago Gipuzkoako beste eskualdeekin alderatuta. Ezaugarri nagusia dibertsifikazioa da; ez dago sektore espezializazio bat. Historian zehar moldatzeko gaitasuna erakutsi duen eskualdea da. Industria eta zerbitzuak dira nagusi, baina lehen sektorean datu aipagarri batzuk badaude. Esaterako, sagardogintza.

Zerbitzuetan, teknologia maila ez da oso altua, teknologia aurreratuak Donostian kokatzen baitira gehiago.

Eskualdean lanbide heziketa puntakoa da, eta horren balioa azpimarragarria da. Etorkizunean lanbide heziketako formakuntza duten langileak giltzarri izango dira”. Azken datu hori balioan jarri beharra azpimarratu zuen.



Urko Aristi telebista aurkezlea Tokikom tokiko hedabideen lehendakari ere bada, eta hura izan zen gidari solasaldian.

## SAGARDOGINTZA

Arantxa Eguzkitzak, ezer baino lehen, bere sektoreari buruzko datu potoloak aipatu zituen: “Euskal Herrian 70 sagardotegi egongo dira, horietatik bailaran 40 gara. Ez bakarrik kopuruan, ekoizpenean portzentaia handiagoa da. Txotxak 800.000 pertsona mugitzen ditu urteko”. Mugimendu handia dagoela esanez jarraitu zuen, sagarra eta sagardoaz gain: “Etxea igeltseroz, linterneroz beteta dugu. Sagardoan asko inbertitzen da, izakeragatik beti inbertitzen ari gara. Inbertsio handiak behar

dira etengabe berritzeko. Sektore bizia gara, gehienok base-rritarrak, eta gure baitan bi izakera uztartzen dira: Alde batetik oso tradizionalak gara, eta bestetik oso modernoak. Horregatik uste dut beti mugimenduan gaudela. Sagardoa gure herriari errotuta dago. Erromatarrek dagoeneko sagardoa aipatzen zuten. Historian zehar, belaunaldiz belaunaldi, egokitzten jakin dugu”.

Ikerkuntzaren beharra azpimarratu zuen, aditu diren inguruko enpresa, ikastetxe eta erakundeekin elkarlan sendoan.

## ENPRESA MUNDUA

Garapen agentziak bere izaera lortu bitartean, Nerea Yurrebaso Andoaingo Udal teknikaria langintza horretan dabil: Eskualdeko enpresen egoera aztertzen eta, ahal dela, irtenbideak eskaintzen. Honako erradiografia egin zuen: “Gure eskualdean espezializazioa ez dago oso sakonduta. Metala, energia, petrokimika edo plastikoa... denetik dugu. Ez da taiman sektore handia, eta hori, adibidez, nazioartekotzera begira eragozpena da.

Gure enpresak aztertu eta

*Ekonomiagurean.eusgunean ikusgai egongo da solasaldi osoa datorren astean*

etorkizunera begira jartzea da udal zerbitzuetik egiten duguna. Digitalizazio prozesuan edota 4.0 teknologian gabeziak ditugu, etorkizuneko metalgintza eta manufaktura eredu berria garatzen hasteko. Ondarea, kultura, industria, turismoa..., eskualdean sektore horiek aurki daitezke eta, esaterako, kulturgintzan edota sagardogintzan indartsu gaudete”.

## ERRONKAK

Aristik eskualdeak dituen erronka nagusiez galdera egin zien solasaldiaren amaieran. Estensorok tokiko ekonomia politikak garatzea defendatu zuen, “besteek ez baitute guregatik egingo”. Eta garapen agentziaren beharra azpimarratu zuen. Eguzkitzak sagardoa kanpoan saltzea beharrezko dela aipatzearekin batera, jatorri izendapena lortzea garrantzitsutzat jo zuen. Yurrebasok biek bat egin zuen, berrikuntza soziala eta teknologikoa azpimarratuz: “Zer egin bezain garrantzitsua da nola egin”.

## Emakumezkoen solasaldia



Miren Estensoro, Orkestra lehiakortasunerako Institutua.



Nerea Yurrebaso, Andoaingo Udal teknikaria.



Arantxa Eguzkitza, Sagardogilea.



## 1936KO OROIMEN HISTORIKOA HIZPIDE

# Memoria historikoa hizpide herri eragileen ahotan

1936ko gerraren eta bere oroimenaren inguruko jardunaldiak egin ziren Martin Ugalde parkean, joan zen astean. Hainbat historialarik eta gizarte eragilek hartu zuten parte hitzaldi eta mahai inguru-

ruetan, Berriak antolatuta. Tartean izan zen Gotzon Garmendia andoaindarra ere. Ekitaldi berean oroiteria.eus webgune berri aurkeztu zuen Berria taldeak.

**1936ko Gerraren** eta errepresioaren memoriaren berreskurapena ardatz hartuta azken urtetan bizi-bizi dabilen mugimenduaren erradiografia egin eta erronkak aztertu zituzten hainbat adituk. Entzuleen artean, arlo hori jorratzen dabilzan politiko eta gizarte eragile ikusi ahal izan ziren; besteak beste, **Maribel Vaquero** Foru Aldundiko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendari Nagusia.

Berria egunkariak atondu duen Oroiteria proiektu multimedia aurkeztuz hasi ziren jardunaldiak. Majuelo eta Mikelarena historialariek parte hartu zuten egunaren hasieran, eta mahai-inguruak eman zion amaiera.



Julia Rubio, Ibai Muniozguren eta Gotzon Garmendia, herri ekimenaren inguruko mahai inguruan.

**GIZARTE ERAGILEEN GOGOETAK** Talde memorialisten eginahalak, horien eta erakunde publikoen zeregina eta elkarlana, ondorengo belaunaldikoei nola egin transmisioa... Hainbat gairi heldu zioten. **Amagoia Ibanek** gidatuta, **Julia Rubio** (Intxorta 1937 elkarte), **Ibai Muniozguren** (Gernikako Loba egitasmoa) eta **Gotzon Garmendia** (Donostiako Oroimen Historikoa Kontseilu Sektorialeko kidea) hizlari aritu ziren.

Posible ote zen oroimen historikoa iritsi den tokira iristea herri ekimenik gabe? Horixe izan zen Ibanek mahaian zabaldu zituen galderetako bat. Eze-koari eutsi zioten hirurek ere, eta arrazoi eta adibide praktikoko ugari azaldu zituzten ikuspuntu hori indartzeko. Rubioren esanetan, “erakunde publikoak herri ekimenen atzetik datoz egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermearen aldarrikapenean. Arrasaten, adibide

ilustragarria bizi izan dugu orain egun batzuk, Jaurlaritzaren menpeko Gogora memoriaren institutuak erakusketa ibiltaria ekarri duenean. Debagoienan gure taldeak laguntza ofizialik jaso gabe jardun behar izan zuen lehenbiziko urteetan. Eta orain erakusketa jarri denean Arrasaten, ikusi da sekulako baliabideak erabili direla, baina edukiz betetzekoan, gu bezalako taldeek urteetan landutako az oinarritu dira”.

Garmendia ez zen oso baikor agertu egun memoria historikoa berreskurapenak bizi duen egoera aztertzerakoan: “Orain urte batzuk 1936ko historiaren gainean gogoeta egiten zenean kontuan hartzen zen gatazka sozopolitiko baten ondorioa izan zela. Inpresioa daukat 2011tik aurrera, beste parametroetatik aztertu nahi dela aro historiko hura. Alegia, minaren eta sufrimenduaren ikuspuntuak soilik. Sufrimendua hartzen

*“Orain urte batzuk 1936ko historiaren gainean gogoeta egiten zenean kontuan hartzen zen gatazka sozopolitiko baten ondorioa izan zela”*  
Gotzon Garmendia

da gertaera historiko hura interpretatzeko elementurik garrantzitsuena ahaztuz. Orduko biktimak justiziaren, berdintasunaren eta beste zenbait ideia politiko aurrerazaleen alde borroka egin zutelako zapaldu zituzten”.

Orain arteko politika publiko hiru faktoreen eraginez mugitu izan dela gaineratu zuen Garmendiak. “Oportunismo politikoa da horietako bat, azken aldira frankismoaren keirelarekin bat egiten ari diren udalek frogatu duten bezala; Euskal Herrian bizi dugun testuinguru politikoa da bigarrena; eta hirugarrena, herri mugimenduen bultzada. Jakitun izan behar gara azken faktore horretaz. Interpelazioaren ildotik jotzen segi behar du herri ekimenak; memoria historiko kolektiboaren aldeko bere lana ezin da ulertu konfrontaziorik gabe”.

Kronika osoa: Aiurri.eus

## ONTZA ELKARTEAREN ERAKUSKETA ZABALIK DATORREN URTARRILAREN ZAZPIRA BITARTE



Ezker eskuin: Fermina Marzol, Joxepi Rodriguez, Xabier Aldalur, Plazida Aldalur eta Ramon Aldalur Ontza elkartean 1966an.

## Argitu da Ontza elkarteko argazkiaren misterioa

Ontza elkarteak argazki erakusketan ikusgai ipini duen argazkietako batean jakinmina piztu zen aurkezpen ekitaldira etorri zirenen artean. Inork ez zituen identifikatzen eta galdera airean geratu zen: Nortzu dira argazkikoak? Hori adieraziz argazkia argitaratu zen aurreko Aiurri astekarian. Bada, **Irene Arregi** Aiurriko irakurle finak argazkian agertzen diren

pertsonak identifikatu ditu. Argazkian agertzen diren etatik ondo gogoan ditu platera eskuan duen **Fermina Marzol**, **Xabier Aldalur** erdian ageri den gaztetxoa, haren aita eta argazkian eskuinean agertzen den **Ramon Aldalur** eta bere ondoan haren arreba **Plazida Aldalur**. Ferminaren eta Xabierren artean dagoen emakume gaztea **Joxepi Rodriguez** da.





# KIROL ALBISTEAK

## Kadete mailako neskak sailkapenaren lehen postuetan



Euskaldunako kadete mailako neskak.

© Zatarain



Urnieta Kirol Elkarteko kadete mailako neskak, denboraldi hasieran ateratako argazkian.

Harrobia indartsu dator, eta hori etorkizunera begira seinale ona da. Bigarren multzoko ligaskan andoaindarrak eta urnietarrak lehen postuetan daude Zarautz taldeari 6 puntu ateraz.

### 12. JARDUNALDIA. Emaizak:

Orioko 1-4 Urnieta  
Zarautz A 0-1 Euskalduna

### 13. JARDUNALDIA.

Eguberrien ostean.

### SAILKAPENA

1. Euskalduna	28
2. Urnieta	24
3. Zarautz A	18
4. Intxurre	16

## ZIKLO KROSA



Belgikan ibili da Asier Arregi, ziklo-kross munduko kopan zehazki. 52. postuan helmugaratu zen Namurren.

## IGERIKETA



Buruntxikiak Oartzungo San Esteban sarian txapelkun-orde izan ziren.

## Pala motzean txapelkun



Pagazpe (1. maila), Oiangu 1 (2. maila) eta Urnieta 2 (3. maila), Gipuzkoako txapelkun berriak dira ezker hormako klubun arteko pala motzekoan. Tokikoari dagokionez, zorionak Fernandez-Garagorri bikoteari.

### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

#### 1. Pala motza, 3. maila. Finala:

OIANGU	32
Zurutuza-Oiarbide	
URNIETA	40
Borja Fernandez-Xabier Garagorri	

## Eskuz binaka, txapelkun-orde



Beti ez dira aurreikuspenak betetzen, eta oraingoan faborito zirenak txapelkun-orde geratu ziren. Etxean bertan jokatu arren, zaletuak alde izan arren, ezin izan zuten irabazi.

### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

#### Eskuz binaka. Finala:

URNIETA	16
Julen Loitegi-Imanol Odriozola	
ORIO	22

## Senior mailako futbola

### 14. JARDUNALDIA. Emaizak:

Deusto 3-1 Euskalduna  
Urnieta 2-3 Sanpedrotarra

### 15. JARDUNALDIA. Asteburuan:

Euskalduna-Dunboa. Urt 7-8.  
Añorga-Urnieta. Urt 7-8.

### SAILKAPENA. 14. jardunaldia:

1. Trintxerpe	30
2. Añorga	27
3. Allerru	27
4. Euskalduna	24
12. Urnieta	15

## Futbola, senior neskak



### 13. JARDUNALDIA. Emaizak:

Urnieta 4-0 Amaia Berri

14. JARDUNALDIA.  
Ostadar-Urnieta. Urt 7-8.

### SAILKAPENA. 11. jardunaldia:

1. Ordizia	29
2. Urnieta	26
3. Ostadar	25



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



**TOKIKOM**

**Ekoizlea:**

**ERROITZ**  
BALTZU MUGATUA

**Laguntzaileak:**



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



**Argitaratzailea:**



**Aiurri eskuragarri:**

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. **Webgunea:** www.aiurri.eus

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.eus

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.eus  
www.aiurri.eus  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

**Banatzaileak:**

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

# Agenda

ABENDUAREN 22TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

## Zinema

**Andoain, Bastero**

- "Pixi Post", estreinaldia. 17:00. Abenduak 23, ostirala.
- "Animales fantasticos" Urtarrilak 1. 19:30. Urtarrilak 2. 19:30-22:00. Urtarrilak 3. 19:30.

## Plenoa

**Urnietan**

- Udal aurrekontu berria onartzeko batzaraldia. 19:00 Gaztetxea. Abenduak 22, osteguna.

## Antzerkia

**Urnietan, Sarobe**

- "Idiot Txou" antzerkia, Ados Teatrotoren eskutik: Josean Bengoetxea, Dorleta Urretabizkaia, Asier Hormaza. 19:30. Bastero. 5 euro. Urtarrilak 4, asteazkena.

## Erakusketak

**Andoain, Bastero**

- "Esku azpi begi" EHUko Arte Ederretan ikasitako hiru artista gazteren eskutik. Azken eguna: Abenduak 30, ostirala.
- "Ontza" elkartearen historia argazki bidez. Azken eguna: Urtarrilak 7, larunbata.

## Farmaziak

**Andoain**

- **Gorospe.** Gaez: **Diaz.** Abenduak 24, larunbata.
- **Arzallus.** Gaez: **Urrutia** (Hernani). Abenduak 25, igandea.

**Urnietan**

- **Odriozola.** Gaez: **Urrutia.** Abenduak 24, larunbata.
- **Tanco.** Gaez: **Urrutia** (Hernani). Abenduak 25, igandea.

## Kanpaina

**Andoain**

- Salkinen Eguberrietako kanpaina, Gabonetako 45 saski irabazteko aukera. Urtarrilaren 5a arte.

## Zirkoa

**Andoain, Bastero**

- **IkusZirkus** Zirkoari dagokion zikloa, ohi bezala, Eguberrietan. Hitzorduak zehatz mehatz 7. orrialdean. 20:00 Bastero. Abenduak 26-30.

## Gazte Astea

**Andoain**

- Gazte Lokalaren eskutik jarduera ugari. Hitzorduak zehatz mehatz 7. orrialdean. Abenduak 26-30. Urtarrilak 3-4.

## Musika

**Andoain**

- Ez gaude udan fest musika jaialdia, lau talderen eskutik. 22:00 Gaztetxea. Abenduak 23, ostirala.

## Zerbitzua

**Urnietan**

- Gela bat ikasgelarako ego-kituko dute, lehenengo lau hilabeteko azterketa garaian. Astelehenetik ostiralera. 08:00-21:00 Lekaio. Urtarrilaren 27ra arte.

## Tailerra

**Andoain**

- Tailer teknologikoa LHko 5-6. mailakoentzat. Robotika eta bideojokoen sorkuntza. 09:00-13:00. La Salle Berrozpe. Abenduak 26-30.

## Eguberriak

**Urnietan**

- **Eguberrietako argien piztuera:** Salesiar ikastetxeko ikasle talde batek iaz egindako lana osatu egin du. 18:00. Etxeberri plaza. Abenduak 22, osteguna.

## Dantza

**Urnietan**

- "Eguberrietan dantzan: Dantza garaikidea". Ane Anzaren eskutik. Plaza mugatuak dira. Informazio gehiago Saroben bertan. Goizez. Sarobe. Abenduak 26-29.
- "Hip hop: Sergio Nguema". Plaza mugatuak dira, eta izen-ematea zabalik dago Saroben bertan. Goizez. Sarobe. Abenduak 30-Urtarrilak 5.

## Bilera

**Urnietan**

- Urnietan Bizirik ekimenak landa eremuko bizilagunak deitu ditu bilera informatibora. 19:00 Xoxokako eskola. Abenduak 22, osteguna.

## Aisialdia

**Urnietan**

- Ikasmin akademian eskulana, musika edota antzerkia 3 urtetik 13 urtera bitarte. 10:00-13:00. Abenduak 23-Urtarrilak 5.

## Erakustaldia

**Urnietan**

- Patinetan trebatzeko tailerra Hernaniko kirol elkartearen eskutik. 13 urtetik gorakoentzat. Patinak eta kasakoak eramatea ezinbestekoa da. Partaideei hamaiketako eskainiko zaie. 11:00-13:30. Salesiar ikastetxea. Abenduak 26, astelehena.

## ZORION AGURRAK

**ZORIONAK**



**Aroa Etxeberria** Arratibelek 6 urte bete zituen abenduaren 17an. Muxu potoloak etxeko guztien partetik. Maite zaitugu.

**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Maialenek 22** urte egingo ditu urtarrilaren 4an. Jarrai beti orain bezain jator, arduratsu irribarretsu eta zoriontsu. Muxuak etxeko partetik!

**ANDOAIN**


**ZORIONAK**



**Irailaren 22an** jaio zinen, **Lara**. Hiru hilabete beteko dituzu abenduaren 22an. Muxu handi bat zuretzat!! Urnietako zure familiaren partetik.

**URNIETA**

**ZORIONAK**



**Kaixo Xune** naiz eta lau urte beteko ditut datorren abenduaren 28an. Uztailean jaio zen Uranaia-rekin eta senideekin ospatuko dut nire eguna. Muuaa!

**ANDOAIN**

**ZORION AGURRAK** diseinua@aiurri.eus | Whatsapp: 619 163 537

## 2017ko aurrekontua onartzeko plenoa Urnietan

Ostegun honetan, abenduak 22, Udalaren ez ohiko bilkura ospatuko da arratsaldeko 19:00etan hasita. Bertan 2017ko Udal aurrekontua onartzeko asmoa dute, eta horrekin batera Beterri Bu-

runtza toki-garapenaren, sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorrean ordezkari izango diren izendapena erabakiko dute.

19:00 Udaletxea  
Abenduak 22, osteguna.

## Urnietako landa eremuko bizilagunei deialdia

**Postontzia**

**Urnietan Bizirik**

Plataforma herrikoitik zuzentzen gatazkaizkie Urnietatik 5 Km baino gutxiagora dagoen Zubietan eraiki nahi duten erraustegiarekin kezkatuak gaudelako. Zaborra errausketaren prozesuaren ondoren ez da desagertzen, zepa eta errauts kaltegarri bihurtzeaz gain, gure lurralde osora zabaltzen diren gas toxikoak jariatzen dituelako. Hori gizaki guztietara iristen dira (umeak, adineko jendea, gaitasun kronikoak dituzte-

nak eta haurdun daudenak ahulenak izanik), aire eta lurralde horretan hazten diren animalietara edota uzta ezberdinen bitartez.

Testuinguru horretan basterriko produktuak kalteak izango dira, eta zenbait lekutan haragiaren ekoizpena debekatuta egongo da.

Arrazoi horientatik, zuen interesekoa izango delokoa, antolatu dugun solasaldira gonbidatu nahi zaituztegu:

Abenduak 22, osteguna  
19:00. Xoxoka eskola.

## Okerrak zuzen

Aurreko Aiurri astekarian Otaño bertsolariaren azken agurrean **Joxe Fermin Argiñare-**

naren bertsoa gaizki transkribatuta argitaratu zen. Hona elizan kantatu zuen bertsoa:

*Agite baserrira  
Lanbreta xarrakin.  
Ez nuan topo egin  
bertsolai txarrakin.  
Geroztik plazaz plaza,  
inoiz elkarrekin.*

*Kapritxosua hitzan  
hi bizitzarekin.  
Baina ezin izan duk  
heriotzarekin.  
Hori ateratzen da  
beti beriakin.*